

GOGOAN PROIEKTUA

Oskia Ramírez Baraze

HITZ GAKOAK: ahozko iturriak, gertuko historia, mikrohistoria, belanaldien arteko topaketa, memoria historikoa.

LABURPENA

Gogoan proiektua, belaunaldien arteko elkarrizketen bitartez, memoria historikoa lantzeraz eta ahozko testigantzak jasotzeraz bideraturiko proiektu didaktikoa da. Ikasleak historia sozialera hurbiltzen ditu; izan ere, elkarrizketatuaren istorioetatik abiatuz, gerra zibileko, frankismoaren diktadurako eta trantsizioaren garaiko bizimoduak lekukotza zuzenetatik ezagutzen dituzte. Iraganeko kontakizun pertsonal hauek gainera, historia ofizialetik kanpo geldituriko hainbat esparru ezagutu eta aztertzeke aukera luzatzen dute. Eta era berean, diktadurak isiltasunera kondenaturiko belaunaldiari gordetako istorioak, pentsamenduak eta beldurrak azalarazteke aukera ematen dio. Bizi errelato hauek ezagututa, ikasleek lorpen demokratikoak balioan jartzea bilatzen da ere.

Gogoan proiektua ikaskuskuntza egoera baten gisara eta modu kooperatiboan lantzeko diseinaturik dago. Egindako grabaziotik abiatuta, bakarka sintesi lan bat egiten dute eta taldeka, elkarrizketatuaren bizitzari buruzko bideo-muntaia sortzen dute, eskerrak emateko oparitzen duten film laburra. **(itzulpena posterrerako laburpenetik har daiteke; azken esaldia izan ezik, zertxobait desberdin idatzita baitago)**

PROIEKTUAREN IBILBIDEA: abiapuntua, sorrera eta oinarri teorikoak¹

Memoria historikoa Historiaren atal berezizat har dezakegu, normalean gainera, curriculumek eta eskoletako testu liburuek baztertu egin dutena. Honi heltzeko gogoak eta baita, gizarte zientzien didaktika berritzeko irrikak ere, arlo honetako hainbat irakasle mugiarazi zituen orain ia hogeitun urte. Testuinguru honetan, 2003.eko irailean, Geronimo de Uztariz Institutuak, Eusko Ikaskuntzak eta NUPEk “Historiaren Didaktikaren II. Jardunaldiak” antolatu zituzten, eta hauen gai ardatza hauze izan zen: *ahozko iturriak eta irakaskuntza*. Jardunaldi hauetatik ondorio asko atera ziren, horien artean nabarmendu

¹ Atal hau, Mikel Oizkoidik EHUK eta Hartu-Emanak elkarteak 2012ko urriaren 24ean antolaturiko XI. Jardunaldietarako idatzitako “Adinekoak gizarte eta hezkuntza esku-hartzean” artikulua ardatz hartuta idatzi da.

daitezkeelarik Pilar Diaz Madrilgo Unibertsitate Complutenseko ikerlari eta irakasleak ahozko iturrien inguruan bertan esandakoak:

- *“Ahozko iturriek betiko historia, eliteak protagonistatzat dituenak, gainditzeko balio dute”*. Hau da, ahozko iturriek esker, botere guneetatik kanpo egon diren hainbat taldek, historian beren lekua izan dezakete. Ahozko historia jendearen inguruan eratzen baita eta hainbat talde anonimoren ahotsa eta iritzia azaleratuz aukera ematen baitu ñabardura eta baita ikuspegi desberdinak aurkitzeko ere, iturri idatziak soilik erabiliz estalian geldituko lirakeenak.
- *“Ahozko iturrien erabilerak aukera ematen du historiako prozesu handiak ikasleen errealitateara hurbiltzeko, gizartearen aniztasuna islatuz eta ikasleen izpiritu kritikoa indartuz”*. Zentzu honetan beraz, ahozko iturrien lanketak gertaera historikoak ezagutzeko aukerak are gehiago zabaltzen ditu, eta baita, ikasleak toleranteago eta irekiago izaten laguntzen du ere, herritar eta pertsona hobeak egiten, azken batean.

Gogoan proiektua NUPen ospatutako jardunaldi hauen emaitza izan zen, horietara bertaratutako irakasle talde handi batek sortu baitzuten. Urte horretan bertan, Geronimo de Uztariz Institutuaren didaktikako mintegiaren inguruan bildurik eta metodologia berritzaile horri ekin nahian, proiektua diseinatzen hasi ziren.² Beste lurralde eta erkidegoetan egindako lan eta ikerketak abiapuntu izanda eta Nafarroa mailan jada egindako zenbait esperientzia kontuan hartuta, (esaterako, Juainas Paulek Lekarotzen gauzatutakoak), proiektuaren helburuak eta honekin landu beharreko etapa historikoak, gaiak eta metodologia ildoak adostu ziren. Etapa historikoari dagokionez, II. Errepublika, Gerra Zibila, Frankismoa eta Trantsizioa ardatz hartuko zirela erabaki zen. Gaiak, anitzak izanen ziren, baina batez ere, eguneroko bizitzarekin, mentalitatearekin, errepresioarekin... lotura zutenak hobetsiko ziren, (jada aipaturiko historia ofizial horren hutsuneak betetzeko helburuarekin). Eta helburu zein metodologiari dagokionez, besteen artean hauek izan ziren hobetsitakoak:

² Horrela jaio zen *Gogoan proiektua* eta ordutik, ikastetxe asko dira urtetik urtera burutzen dutenak, Iturruma BHI horren adibideetako bat izanik.

- Ikasleak ikerketa historiko zuzenak eginez bere ikasketen protagonista bihurtzea eta historialarien lana hurbiletik ezagutzea zein esperimentatzea, (elkarrizketak egin zein grabatuz, dokumentuak bilduz, ondorioetara iritsiz, lan txostenak idatziz...).
- Historia hurbila lantzea, bai ikuspuntu kronologikotik bai eta gaien ikuspuntutik ere, helburua izanik, elkarrizketen bitartez gure gertukoek bizitutako etapa historikoak eta hauetan izandako eguneroko bizipenak ezagutzea.
- Memoria historikoa lantzea, testigantzekin idatzia dagoena osatuz, historia fosilizatu batetik ihes eginez eta historia bizi bat eraikitzen lagunduz. Elkarrizketatuaren arabera, kontakizuna ezberdina izanen da, baina bereziki aukera luzatu nahi zaie, modu ezberdinetara “galtzaile” izateagatik ahotsik gabe gelditu zirenei.
- Ikasleen izpiritu kritikoa eta hausnarketarako joera sustatzea, balore demokratikoak, tolerantzia eta bakerako hezkuntzan oinarrituriko gizartea eratu dezaten. Memoriak iragana modu osoago batez ezagutzeko aukera emateaz gain, gertaturikoaren kontzientzia ematen baitu, beste mundu bat eraikitzen laguntzeko eta izandako akatsetan berriz ere ez erortzeko.
- Enpatia lantzea, belaunaldien arteko erlazioa estutu eta bestearen larruan sartzeko aukera ematen duen heinean, besteak kontatzen duenak norberarenak bailitzan sentitzeko (pobrezia, zapalkuntza, emigrazioa) eta errealitatea beste ikuspegiz analizatzeko.
- Iturrien artxibo bat osatzea urtero jasotzen den material idatzizko, grafiko zein ikus entzunezkoarekin.³

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektuaren gakoa ikasleek adineko pertsoneri egin beharreko elkarrizketan dago. Lan prozesua taldeka egingen dute eta talde bakoitzeko pertsona bat elkarrizketatuko da. Datozen paragrafoetan Iturrama BHIIn lantzen den Gogoan proiektuaren berezko ezaugarriak luzatzen dira.

³ Jasotako dokumentazio oro ikastetxeetan gordetzen da eta honen erabilera egin daiteke, beti ere helburu pedagogikoarekin bada. Alabaina azken urteetan artxiboan gordetzea arazo bat bilakatzen ari da, ezen urte asko pasa dira hauek jasotzen eta espazio falta izaten da institutuetan.

Oinarri metodologikoak: IK/KI, zereginak eta ikaskuntza zerbitzua

Iturruma BHIIn urteak dira pedagogia berritzaileetan formatzen ari garela eta gure metodologiaren ardatzetako batzuk, IK/KI, zereginen bitarteko metodologia eta ikaskuntza zerbitzuan oinarrituriko metodologia dira. Horregatik azken urteotan, ildo hauek segitzen ahalegindu gara eta hauen arabera Gogoan proiektua egokitzen. Funtsean, Gogoan proiektua ikaskuntza egoera inklusibo, kooperatibo eta konpetentziala bilakatzea izan da gure helburua.

Lan prozesua taldeka burutu beharrekoa da. Ikaskuntza kooperatiboari jarraikiz, taldeak laukoak izan daitezten ahalegintzen gara eta hauek irakasleak sortzen ditu, ikasleen artean oreka bat bilatu aldera, (generoaren ikuspuntutik, ikasleen gaitasun sozial eta akademikoen ikuspuntutik, etab). Talde hauek modu kooperatiboan jardun beharko dute eta horretarako, taldekide bakoitzak funtzio konkretu bat beteko du. Era berean, proposatzen zaizkien zenbait jarduera gauzatzeko, egitura kooperatiboak erabili beharko dituzte, (arkatzak erdira, irakurketa partekatua, bat bi lau, folio birakaria...). Ebaluazioari dagokionez ere, hau IK/KIren gomendioei jarraituz gauzatzen da. Modu honetara, heteroebaluzioa, autoebaluzioa eta koebaluzioa aplikatzen dira eta produktu finalaz gain, lan prozesua, lan indibiduala eta ekipo lana ere ebaluatu zein kalifikatzen dira; honetarako erabiliko diren trenak, (behaketa eskalak, errubrikak...) ikasleek lehen unetik izanen dituzte eskura, (*ikus argazkiak*)

Gogoan proiektuari halaber, azken urteetan zereginaren balioa eman nahi izan diogu eta ikaskuntza zerbitzuari keinu txiki bat egin. Proiektua honela aurkezten zaie ikasleei; *“adineko pertsona bat elkarrizketatu eta grabatu beharko duzue, frankismoaren eta trantsizioaren garaia gertuagotik ezagutzeko eta garai horretan gertatutakoaz hausnarrarazteko. Grabatutakoan oinarriturik, txosten idatzi bat egin eta minutu gutxiko bideo muntai bat sortu beharko duzue, elkarrizketatuari ondoren, oroigarri gisa oparituko diozuen. Bideo hauek halaber, klasean proiektatuko ditugu, nork bere elkarrizketatua besteei aurkezteko”*. Grabazioak oso luzeak izaten ohi dira eta hauek “laburmetrai” bilakatzearen erronkak proiektuari balioa erantsi diola uste dugu. Izan ere, batetik, ikasleek sintetizatzeko ariketa burutu behar dute, deigarrien egin zaiena hautatuz. Bestetik, elkarrizketatuari esker onak emateko bideoa egin behar izateak, hau txukun editatzeko ardura exijitzen du, ikasleak motibatzen dituen lan eder bat gauzatzeko. Elkarrizketatuak gainera, lan honen bitartez bere bizitzaren oroigarri grafiko bat jasotzen du, ilusio handia egiten ohi duena.

LAN PROZESUA

Elkarrizketatua hautatzea

Taldekideek egin behar izaten duten lehenengo gauza elkarrizketatua hautatzea izaten da, jartzen zaien baldintza izanik protagonista laurogei urtetik gorakoa izatea, (adin horietakoak baitira gerraostea ezagutu eta gogoratzen duten pertsonak). Talde bakoitzeko hautagai bat baino gehiago balego, haien artean adostu beharko lukete zeini egin elkarrizketa, honetarako, irizpide ezberdinak kontuan hartuz; hala nola, genero aldetik interesgarriagoa egiten zaiena, herritarra edo hiritarra elkarrizketatzea nahiago ote duten, non egingen duten elkarrizketa eta bertaratzeko dituzten aukerak, protagonista ezberdinen bizi esperientziak, militantzia, hizkuntza... Erabakiak hartzeko klaseko saio bat utziko zaie.

Elkarrizketatua behin aukeratuta, harekin kontaktuan jarri beharko dira. Halabeharrez lanaren helburuak eta prozedurak zeintzuk diren argi azaldu beharko dizkiote eta grabatua izatea onartu beharko du, (grabatuta izan nahi ez badu, ezingo zaiolarik elkarrizketa egin). Era berean, elkarrizketatuak baimena eman behar du helburu pedagogikoekin elkarrizketaren erabilera publikoa egiteko. Alegia, lana, institutuko artxibategian gordeko da eta elkarrizketatuak esandakoa eta ondoren ikasleek sortuko duten bideo laburra, erabiltzerik izango dugu (klaseak prestatzeko, klaseetara adibide errealak eramateko, erakusketak egiteko...). Hau guztia onartzen duela adierazteko, elkarrizketatuak baimen orri bat sinatu beharko du eta hau irakasleari erakustea ezinbesteko baldintza da elkarrizketa egin aurretik.

Elkarrizketa prestatu eta burutzea

Hurrengo fasea elkarrizketaren prestaketa izanen litzateke. Hau egiteko irakasleak elkarrizketa gauzatzeko kontuan hartu behar diren baldintzak eta hau burutzeko gidoi gisa erabil daitekeen galdetegia banatuko dizkie, baita, elkarrizketa ebaluatzeko zein kalifikatzeko erabiliko duen errubrika ere. Ikasleek dokumentu hauek ikertu eta lana banatu beharko dute. Batetik, bakoitzak taldean beteko duen rola eta honi dagozkion funtzioak adostuko dituzte, (hauek guztiak zehazturik emanen zaizkiela); horrela koordinatzaile bat, tekniko bat, materialaren arduradun bat eta hizkuntzaren arduradun bat egonen da talde bakoitzeko. Bestetik, elkarrizketaren unean bakoitzak zein atalen gaineko ardura hartuko duen zehaztuko dute, ezen baldintzetako bat da denak, elkarrizketa egunean presente egotea eta denek, galdeketan parte hartze zuzena izatea.

Azkenik, grabaziorako beharrekoak diren kontu guztiak ongi adostu eta lotu beharko dituzte. Elkarrizketaren prestaketa lan hau burutzeko gizarte ikasgaiko saio bat utziko die irakasleak.

Elkarrizketa nork bere protagonistarekin adostuko duen tokian eta egunean gauzatuko da eta hau egiten hasi aurretik komeni da, jada irakasleak banaturiko gomendio orria, baldintzak eta ebaluazio errubrika beste behin irakurtzea. Komenigarria da ere elkarrizketatuarekin solasaldi txiki bat izatea grabatzen hasi aurretik, hots, galdetuko zaionaren laburpentxo bat aurreratzea, eroso ote dagoen galdetzea, soinu eta irudia egokiak ote diren konprobatzea, etab. Ezinbesteko baldintzetako bat izanen da elkarrizketaren momentuan soilik ikasleak eta elkarrizketatua egotea, beste inor ez, elkarrizketatuari protagonismo guztizkoa uzteko eta erantzunetan baldintzaturik ez sentitzeko.

Elkarrizketa amaitutakoan protagonistari argazkiak edo bestelako dokumentu historiografiko zein historikorik bat ote duen gordeta galde diezaioke eta horrela bada, hauek erakusterik eta lanean erabiltzerik ote dituzten eska diezaioke, (beti ere, originalei kopia eginik, inoiz ez, originalekin geldituz).

Elkarrizketa egin ondoko lana; transkribaketa eta sintesi lana

Elkarrizketa egindakoan, lan idatzizkoa burutu beharko dute, hots, transkribaketa, sintesi eta ondorioen lana.⁴ Hau Iturrama BHI institutuan bi modu ezberdinetara egin izan ohi da.

1. Elkarrizketa guztia, lehen minututik azkenekora, hitzez hitz transkribatzea, hau irakasleari aurkezteko honek zuzendu eta kalifikatu dezan. Hau horrela egitearen arrazoi nagusia ikasleek historiagileek ahozko iturriak tratatzeko erabiltzen duten metodoa ezagutzea eta honetaz kontzientzia hartzea litzateke. Ondoren ikasleek elkarrizketatik ateratako ondorioak jasoko dituen testu bat idatziko dute, hau ere irakasleak zuzendu eta baloratuko duen bitartekari. Transkribaketa etxean egin beharreko lana izango litzateke, ondorioetarako, irakasleak klase bat utzi diezaieke erabaki komunak hartzeko eta ondoren, etxean lana bukatu.

⁴ Transkribaketaren atala halaber beharrez elkarrizketatuaren jatorrizko hizkuntzan egingen dute, sintesi eta ondorioen atala, D ereduko ikastetxeetan euskaraz noski.

2. Elkarrizketaren sintesi lana egitea, honetan, elkarrizketatuak kontatutakoaren laburpena eta deigarrien egin zaizkien kontuak jasoz, (bizipenen narrazioa) eta hau berresteko, protagonistak hitzez hitz esandakoaren esaldiak transkribatu. Bukaeran, ondorioak jasotzen dituen testu bat sortu behar dute.⁵ Kasu honetan, ikasleek elkarrizketa guztia transkribatu beharrean, esaldi batzuk baino ez dituzte transkribatuko, egiten ari diren elkarrizketatuaren bizi narrazioa egiaztatzeko erabiliko dituztenak. Aukeraketa lana egiteko irakasleak klase ordu bat edo bi utzi diezaieke. Gainerakoa etxean egin beharko dute. Hau horrela egitearen arrazoiak ezberdinak dira. Batetik, historialariek artikulua edo ikerketa lan idatziak egiteko modua esperimentatzen dute, ezen ikasleek sortutako testu idatzia, elkarrizketatuak aipaturiko esaldi transkribatuekin egiaztatu behar dute. Bestetik, denek adostasunetik jaiotzen den sintesi lan bat da, ezen denek aukeratu behar dute elkarrizketaren atal bakoitzeko zerk deitu dien gehien atenzioa eta zein esaldi diren hau baieztatzeke egokienak. Aipatu beharra dago ere, elkarrizketa bere osotasunean transkribatzeak ikasleei lan neketsua egiten ohi zaiela eta denbora asko exijitzen diela.

Modu batera edo bestera bada ere, lan idatzi hau irakaslearekin partekatutako drive edo ikasgelako/classroomeko dokumentu batean burutuko dute. Izan ere honek besteak beste laguntzen du irakasleak gainbegiratu eta behatu ahal izatea, funtsezkoa dena lan prozesua bide onean ari ote den ikertzeko eta horrela ez bada, prozesuan esku hartu eta egoera bideratzeko.

Bideo muntaia eta honen erakusketa publikoa

Behin lan idatzia bukatuta ikasleek bideo muntaia editatzeari ekingo diote. Bi baino ez dira baldintza ezinbestekoak; lehena, bideoak ezin dituela bost minutu baino gehiago eduki eta bigarrena, elkarrizketatuarekin berriz ere gelditu beharko direla hau oparian

⁵ Ikasle bakoitzak elkarrizketaren atal konkretu baten gaineko ardura har dezake honen sintesia egin eta esaldi esanguratsuen transkribaketa egiteko. Modu honetara, irakasleak lan indibiduala ere ebalua dezake. Ondorioei dagokionez, interesgarriena litzateke denek artean hauek osatzea. Alabaina, aukera bat izan daiteke denek artean ideiak ateratzeko dinamika kooperatiboren bat erabiltzea baina gero, ondorioen erredakzioa indibiduala izatea. Lan indibiduala ebaluatzea funtsezkotzat jotzen dugu, eta horretarako, ebaluagarriak eta kalifikagarriak diren ebidentziak jaso behar dira, (aipaturiko transkribaketa indibiduala eta ondorioak tresna paregabea izan daitezkeela).

emateko. Aldarte teknikoei dagokionez, libre izanen dira nahi bezala editatzeko, hori bai, erakargarria egiten ahalegindu beharko dira, ahal dutela, musika erantsiz, esaldiak erantsiz, etab. Gizarte irakasleak ordea, aldarte teknikoei baino, edukien aldatetari begiratuko dio bideo muntaia ebaluatzeko, kontuan hartuko direla batik bat, aukeratu diren elkarrizketaren unean esangura, bideoak kontatu nahi duenaren kohesioa, etab. (ikasleek beti ere, eskura izango dituzten irizpideak banatuko zaien bideo muntaiaren ebaluazio errubrikan). Hautaketa lan hau egiteko irakasleak saio bat utz diezaike, baina muntaia berez, etxean egin beharko dute. Bideo hauek ondoren, klasean proiektatuko dira, zeinekin batera ikasleek, haien elkarrizketatuaren aurkezpen txikia egingen diete ikaskideei.

Proiektuari amaiera emateko komeni da irakasleak honen inguruko azken saio bat prestatzea; hau alabaina, norberak diseinatuko du ikasleen interesen arabera, prozesuan zehar atera diren hausnarketan arabera, etab. Aukera polita izanen litzateke ere, arratsalderen batean ekitaldi xume bat gauzatzea, elkarrizketatu guztiak eta haien familiak honetara gonbidatuz, bideo batzuk proiektatuz, hitzalditxoren bat eginez, etab.

EBALUAZIOA

Jada aipatu bezala, ebaluazioa IK/KIren oinarri teorikoak ardatz hartuta burutuko da. Horrela, proiektua bere osotasunean ebaluatuko da, hots, ez dira soilik produktu finalak aintzat hartuko, (lan idatziak eta bideo muntaia-laburmetraia), prozesua bera ere ebaluatuko da, baita, talde lana zein lan eta ahalegin indibiduala ere. Honetarako guztirako irakasleak errubrika eta behaketa eskala ezberdinak erabiliko ditu, lana ikasleekin egiten hasi aurretik jada diseinaturik egon beharko direnak, (*ikus argazkiak*). Halaber, denak nota bat izango du, ebaluazioan bere isla izango duena. Honen guztiaren berri ikasleek lehen unetik izan behar dute, (irakasleak erabiliko dituen ebaluazio tresnak eskura izanik), kontziente izan daitezen, zer den zehazki irakasleak behatuko duena eta nola, noiz... ebaluatuko duen. Hau horrela egitea ezinbestekoa da lanaren arrakasta maila hobetzeko. Era berean garrantzitsua da irakaslea prozesua ebaluatzen eta behatzen joatea eta ikasleak norabide okerrean baleude, esku hartu eta zuzentzen ahalegintzea, soilik horrela lortzen baita arrakasta ziurragoa izatea eta lana bera, aberatsagoa izatea.

Aipatzekoa da ere ebaluazioan irakasleak ez ezik, ikasleek ere parte hartzea gomendatzen dela, hauek, haien lan indibiduala, talde gisa egindako ekipo lana eta taldekide bakoitzak egindakoa ebaluatuz (autoebaluazioa eta koebaluazioa gauzatuz,

alegia). Honetarako irakasleak errubrikak prestatuko ditu, notarako ere erabiliko dituenak.

BALORAZIOAK

Gogoan proiektua Iturrama BHIn urtez urte gauzatzen jarraitzearen arrazoi nagusienetako bat, ikasle zein irakasleek honen inguruan egiten duten balorazio positiboa da. Datozen paragrafoetan, Iturrama institutuko irakasle izandako Cristina Palaciosek eta ikasle izandako Ainara Ainzua proiektuaren inguruan egiten duten balorazio pertsonalak luzatzen dira:

Cristina Palacios Belloso irakasleak idatzitako balorazio pertsonala

2006. urtean DBHko 4. mailan eskolak ematea egokitu zitzaidan. Nire lehen aldia izan arren, Historia Garaikidea gustuko nuen eta beraz, lasai nengoen. Kontziente nintzen gainera, Gogoan Proiektua landu beharko nuela (horrela finkaturik baitzegoen programazioan). Zer edo zer banekien proiektu horretaz, eta mintegian, lanarekin hasteko beharrezkoa zen guztia jasota zegoen; zeregina, lanaren justifikazioa, ezinbesteko dokumentuak, galdetegia, edukiak, epeak, etab. Alabaina, zerbaitek loa kentzen zidan, paperekin soilik itsu bezala sentitzen nintzen. Izan ere, askotan, dokumentazioa bezain inportantea izaten da lehenago zeregin hauetan aritu diren pertsonen esperientziak jasotzea eta hauek hurbil sentitzea. Alde horretatik aparteko zortea izan nuen, nire lankideak ondoan izan nituelako, (eta ni ere gauza bera egin izana espero dut lekukoa hartu zutenekin).

Lehen ikasturte honi, Gogoan proiektua gauzatzen hurrengo zazpiek segitu zioten eta urtero-urtero, gogoz egoten nintzen ikasleei proiektuaren nondik norakoak azaltzeko egunaren zain. Lehen saioan proiekturako nik sentitzen nuen gogo-berotasuna kutsatzen saiatzen nintzen. Horretarako mila pasadizo kontatzen nizkien, aurreko ikasturteetan egindako lanak gelara eraman eta denon artean gain-begirada bat ematen genien, grabatutako elkarrizketen zati esanguratsuenak edo hunkigarrienak entzuten genituen, argazkiak eta dokumentuak elkarrekin ikusi eta aztertzen genituen, etab. Oso polita zen ikasleen erreakzioak urtetik urtera oso antzekoak zirela baieztatzea, haien interesa eta jakin-mina nola pizten zen ikustea, lanarekin hasteko zuten presa konprobatzea, nor elkarrizketatuko zuten pentsatzen zein eztabaidatzen ikustea... Irakasle gisa oso errerealizatu sentitzen nintzen egun hauetan.

Saio politak izan ziren ere elkarrizketa bera prestatzeko egindakoak. Izan ere, galdetegia birpasatzearekin eta ikasleei honen gaineko aldaketak proposatzen uztearekin batera, (ezen galdetegi itxi bat eskaini arren, posiblea da gidoitik ateratzea eta galdera propioak egitea), frankismoaren inguruko teoria pixka bat lantzen genuen. Era berean, elkarrizketaren unean diskurtsoak hartzen zuen norabidearen arabera ezarritako gidoitik atera eta gidoira bueltatzeko entseguak egiten genituen eta baita, pertsonen arteko tratua onek nolakoak beharko luketen izan lantzen genuen ere: adineko pertsonengana nola hurbildu, errespetuzko tratua nola erakutsi, interesa nola adierazi, lanaren balorea eta garrantzia nola transmititu, entzute aktiboa nola izan, nola eskertu elkarrizketatuei haien bihotzak zabaldu izana... Esan beharra daukat, mila aldiz konprobatu izan dudala ikasleek kontutuan hartu zituztela aholku hauek guztiak, bai galderak egiterako orduan, bai eta elkarrizketatuei eskerrak emateko momentuan ere, (askotan lore sorta bat edo gozoki kaxa bat opari gisa emateko unea betekotzen zutelarik lanean txertatzen zituzten argazkien bitartez). Elkarrizketatutako adineko pertsonen jarrera ikustea ere atsegin nuen eta gazteekin gertatzen zen legez, haien jarrera patrioiak gehienetan errepikatzen ziren ere. Izan ere, behin eta berriz haien esperientzia gazteei pasatzeko gogoia erakusten zuten, hau, baliogarria eta garrantzitsua zelakoan. Behin eta berriz, entzuna izateko gozamina adierazten zuten. Behin eta berriz, iraganeko kontuak gogoratzen hunkitzen ikusten nituen.

Aitortu beharra dut ere, gogoz espero nuela testigantzak entzuteko momentua. Zuzenketa asteburu hauetan orduak eta orduak ematen nituen proiektuan buru belarri, baino beti aberasgarri egiten zitzaidan. Askotan pelikula batean bezala murgilduta sentitzen nuen nire burua; hain zehatzak ziren deskribapenak, hain erromantikoak amodioak, tragediak hain beltzak... zeinekin barre eta negar egin izan dudan behin baino gehiagotan. Urteak pasa ahala ohartzuz joan nintzen gainera, belaunaldi bereko gizakien esperientziak zein antzekoak ziren, hala nola, gerrako haurrek zein gazteek pairatutako errepresioa, sentitutako beldurra, jasandako pobrezia, kultura politiko falta... Eta aldi berean, miseria horretako oroitzapen nostalgikoak eta horietatik bizirik atera izanaren bizipoza, energia eta itzaropena.

Proiektuak bigarren fase bat ere bazuen: transkribaketa eta sintesia. Atal honetan ikasleek lortutako informazioa transkribatu ondoren, gaika azaltzen zuten, (haurtzaroa, gaztaroa, politika, Eliza, ohiturak...) eta bere testuinguru historikoan txertatzen zuten. Azkenik, iritsitako ondorioak beste ikaskideen aurrean adierazten zituzten, honetarako

mota guztietako informazio iturriez baliatu behar zirela, (garaiko objektuak, argazkiak, dokumentu ofizialak, gutunak, etab.). Gehienetan kalitate handiko lanak ziren, oraindik mintegian daudenak kutxetan gordeta hauen gaineko ardura nork hartuko zain.

Irakaslea nintzen aldetik, urteroko sentsazioa zera zen, helburuak betetzen genituela. Eta kurtso bukaeran ikasleei urtero ikasgaiko interesgarriena aipatzeko eskatzen nienean, Gogoan proiektua agertzen zen lehen postuetan. Nik ere, orain jada jubilatuta nagoela, dudarik gabe, proiektu hau podiumean jarriko nuke nire lan bizitzako esperientzia didaktiko interesgarriena izendatzeko eskatuko balidate.

Ainara Ainzua Iturrama BHIko ikaslearen balorazioa

Oso proiektu aberasgarri eta baliagarria dela uste dut, urte luzez ilunpean gordetako argira ekartzea ahalbidetzen duena. Nire aiton amonen belaunaldiarendako, ezagutu dudanez, bi gauza dira garrantzizkoak: familia eta hezkuntza. Gogoan proiektuak bi horiek batzen ditu memoriarekin. Instituturako proiektu bat dela esatean, gogoz hitz egiten dute eta, horrela, memoria hedatzen doa. Erantsiko nuke ikasleek guda zibila edo frankismoa iraganeko historiaren pasarte bezala ulertzen dutela eta, haien gertuko bizipenak ezagututakoan, errealitate horretara gerturatzen direla eta interesa pizten zaiela. Nire iritziz, hezkuntzan halako gaiak jorratzea ezinbestekoa da, ez-errepikapenerako berme gisa, batetik, eta mundu hobe bat eraikitzeko kontzientzia kritikoa duen gizarte bat garatzeko, bestetik.